

ZENBAT BURU  
Unai Villena

BAI, ESAN?  
Jesus Hoyos,  
garraiolaria

ERREPORTAIA  
Elgoibarko baserriak

KALE INKESTA  
Ikusten al diozu  
irtenbiderik Euskal  
Herriko indarkeriari?

KIROLA  
Gipuzkoako  
Eskolarteko Krosa

KULTURA  
GUREAN BAI-k  
urtebete egin du

GAZTAROA  
Pasiboak al dira  
Elgoibarko gazteak?

# BARREN

1997ko otsailaren 21a  
V. urtea - 184. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A


## 200 baserritik gora daude Elgoibarren

DEBEMENek gida-  
liburu batean bildu



“Berandu jai kitzen bazara, eguneko lanak atzera”


*Gurekin*  
Hazi eta  
hezi  
2tik 16 urtera



**AURREMATRIKULA ZABALIK**

otsailaren 17tik 28ra

8.30-19.00 bitartean



UNAI VILLENA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzaren esku dago aukeraketa.

## EgOLOGISMOA

**X**XI. mendearen atarian gaudela, aski ezagunak zaizkigu “negutegi efektua”, “ozono geruzaren zuloa” edo “giro kutsadura” bezalako arazoak. Ia denok dakigu zerbait Chernobilen gertatutakoari buruz; baso ekuatorialak desagertuz doazela ere hamaika alditan entzun dugu.

Badirudi aspaldidanik, teknologi mailan gertatzen den aurrerapen bakoitzeko, natura mailan arazo berri ugari sortzen dela. Gizonaren gaitasunak agortezinak diren bitartean, naturak bere mugak ditu, aspaldi zeharkatu genituen mugak.

Azken hau ez da sugerentzia hutsal bat izan, baieztapen trinko bat baizik baina ez dut uste ezer berririk esaten ari naizenik. Egoera kezagarria den arren, zorionez (edo zoritxarrez) ez gara alarmismo egoera batera heldu. Gure erosotasunak ez luke inolaz ere hori onartuko. Ekologismo deituriko mugimendu hori sortu zenetik, bera arduratu da naturaren alde borrokatzeaz, ekologista izatera guztiok apuntatzen garen bitartean. Neurri batean ulertzekoa da: ekologismoa modan dago eta guztiok harrapatu nahi dugun trenan bihurtzen ari da, nola arazoaren benetako garrantziaz ohartu garelako, hala “ekologista naiz” dioen karteltxoan lepotik zintzilikatu nahi dugulako.

Gaur egungo gazteok ekologiaren arazoekin oso kontzientziaturik omen gaude, hala zioen duela gutxi irakurri nuen aldizkari batek. Egia ote da? Nik ez dut hori uste; gaur egungo gaztearen estereotipoari gehitzen dioten ezaugarri bat bezala ikusten dut. Egia izan beharko lukeena, bestalde.

Gero eta informazio gehiago dugu, baina askotan ia alternatiboak diren bideetara jo behar dugu sakonagoa den zerbait aurkitu nahi badugu. Bide asko gelditzen da jorratzeaz. Informazio eza gutxi balitz, pu-

**“Guk geuk eraikitzen dugun ekologismoaren atzaparretatik ihes egin eta ekologismoa gauzatzea da bide bakarra”**


blizitate mundutik datorren korronte ekologikoa zeharo nahasten gaitu. Produktu ekologikoa luzatzen dizkigute etengabe, kontraesanak; kasu gehienetan “eko-” aurritzia pro-

duktuaren izenari gehituz salmentak handitzeko enpresek darabilten estrategia penagarri bat.

Kritikoak izan beharra dugu, arazo honen aurrean ez dago jarrera pasibora jotzerik; bakoitzak bere esku duen guztia egin behar du. Guk geuk eraikitzen dugun ekologismoaren atzaparretatik ihes egin eta ekologismoa gauzatzea da bide bakarra.

Nik neuk behintzat nire hiletarako desiratzen dudana bakarra bizirik ehortz ez nazaten da, lurrak ez du horrela hiltzerik merezi.

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

#### ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

#### LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

#### ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

#### ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

#### KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

#### PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

#### MAKETATZAILEA

Maite Rementería

#### ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

#### KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegí,

Gemma Agirregomezkorta, Jon Arrieta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Expósito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martínez, Juan Luis Mugertza,

Ixidore Solupe, Leire Urkidi, Unai Villena

eta Julen Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

#### TIRADA

4.000 ale

#### LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

#### ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



kuzka fundazioa  
fundación kuzka



## Bakerako bide bat

XI. mendearen atarian gaude-la, eta Euskal Herrian bizi dugun errealitate gordina oraindik jatorri politikoa duten helburuak lortzeko biolentzia bere modu guztietan (hilketak, bahiketak, mehatxuak, kale borroka...) erabiltzen duten pertsona eta erakundeak daudela kontuan izanik, EAJ/PNVko militante gisa, ehun urte luzetan zehar helburu politikoak lortzeko biolentzia arbiuatu duen alderdi politikoa baten kide gisa, ETAre biolentziaren aurka nagoela izenpetzen dut, baina baita Zuzenbideko Estatu demokratiko baten legaltasuna zapuzten duten beste biolentzia moduen aurka nagoela ere.

Gatazkaren gaur egungo egoera aztertuz, argi esan daiteke blokeo egoeran gaudela, amaigabeko berdinketa baten aurrean. ETak duen birsortze gaitasunak, gizartearen zati baten laguntzarekin gainera, bistan uzten du MLNVaren errendiziora zuzenduak dauden estrategien porrota. Soluzio polizialak gatazkarekin amaitzea ez duela lortuko argi dagoen bezala, indar berdinarekin esan beharra dago ETak ez dituela biolentziaren bitartez bere helburu historikoak lortuko.

Honen aurrean gerta dakigukeen okerrena da hiritarrok honelako egoera batean bizitzen ohitzea, non ETak noizean behin atentatzen baitu eta bestetik, giza eskubideak zapaltzen baitira. Honelako egoera batean politikoez ezin esan dezakegu arazoez ez dutela irtenbiderik eta denborak konponduko duela. Ardura publiko eta politikoa ditugunok ahal duguna egin beharko dugu eragozpen hauek gainditzeko eta adostasunerako lekuak bilatzeko.

EAJ/PNVtik oso fede gutxiarekin ikusten dugu ETak eta Estatuak negoziatio bilateral baten bitartez gatazka konponduko dutenik. Estatuak ez du ETarekin negoziatzeko bokaziorik eta beharrik, azken finean badaki ETak min emateko gaitasuna duela, baina min hori jasankorra zaio. Bestalde, ETak, indarraren bitartez lorpen politikoak bilatzen dituen erakundea izanik, zailtasun nabarmenak ditu negoziatio esparruan.

Blokeo egoera honetan EAJ/PNVren lehentasun politikoa bakerako bide

berriak bilatzea da. Jatorri politikoa duen gatazka baten konponbidea elkarriketa eta negoziatio prozesu batetik etorriko dela ulertuaz, ez diogu beste gizarte, politika eta sindikalgintzako erakundeekin beharrezkoak diren harremanak izateari uko egiten. Euskal Herriaren gizarte aniztasuna kontuan hartzen duen soluzioa ezin eraiki daitekeela kontuan izan behar dela dakigu, azken finean badakigu espainola sentitzen ez den eta independentzia nahi duen kolektibo garrantzitsu batekin batera Espainiarekiko pertenezia sentimendua nagusitzen den beste euskal gizartearen zati bat bizi dela.

Negoziaketaren gai eta edukin aipatuenera dagokionez, autodeterminazio eskubidea edo "Euskal erabaki esparru" (Ambito Vasco de Decisión) delakoa ageri da. Ez errebindikazio gisa, errespetatu beharreko oinarritzko eskubide gisa baizik. Honela, eta autodeterminazio eskubidean inarriturik Estatuak batzen dira (RFA eta RDA izandako kasu), lehendik zetorren bat banatzen da (Txekia eta Eslobakia) edo gaur egun desagertua dagoen inperio baten barnean zeuden beste berri batzuk eratzen dira (URSS ohiko Errepublikak Baltikoen kasua).

Honela, EAJ/PNVk Euskal Herriarentzat bere autodeterminazio eskubidearen pausokako iharduera aldarrikatzen du, herri batek modu baketsu eta demokratikoen bitartez bere estatus politikoa, kulturala, ekonomikoa eta beste kolektibitateekin izan behar diren harremanak zehaztuko duen botere esparrua ezartzeko gaitasuna, alegia.

Horretarako elkarlotura politikoa berriak diseinatu beharko dira, bere onarpena eskatzeko arrazoik azaldu, onarpenaren ondoren irekitzen diren aukera berriak itxuratu, azken finean, herria bere defentsa eta laguntzan inplikatu. Honelako ekimen bat martxan jarri gero, ezin egon daiteke gure herriaren honelako prozesu bat geldiarazi dezakeen estatu demokratikorik.

**Isaac Loiola Zabala**  
**Gipuzkoako Buru Batzarreko**  
**Burukidea**

BARRNek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

## GALDERAK

◆ “Goizaldeko 4,30etan ihauterietako asteartean zergatik itxi zituzten tabernak?”

Udaltzaingoko buruarekin egon gara eta bere erantzuna honakoa izan da:

“Jai bereziren bat dagoenean tabernariak orduetgia lzuatzeko eskaera egiten dute normalean. Egun horretarako eskakizunik ez genuen jaso, beraz, tabernak ohiko orduetgian itxi ziren”.

## KEXAK

◆ Santa Anako errotonda berrian zebra bidea tokiz aldatu dutela-eta (orain Sigmako zubian dago) bertan bizi diren batzuek kexa bat plazaratu nahi dute: “lehen espaloitik jaisteko ranpatxo moduko bat zegoen, baina orain, zebra bidea dagoen tokian espaloiak ez dauka aldapatxorik. Are gehiago, espaloia jaitsei eta berehala, sekulako zuloa dago. Oso arrisksua dago, bat baino gehiago, pertsona nagusiak batez ere, bertan behera erori da eta”.

## TXALOAK

◆ “Txaloak Haundiari Zorrozan lortu zuen garaipenarengatik. Bina berdintzen hasi, 3 eta 2 galtzen gero, eta azkenean 4 eta 3 irabazi zuten. Eskerrik asko!” Zaletu batek.



◆ Madalako kontenedoreak direla-eta, txaloak eta kexak heldu zaizkigu. Batetik txaloak Gazte Asanbladakoei zabor kontenedoreak Madalantik kendu eta atzeko kalean jarri dituztelako. Sekulako txukuntasuna ikusten omen da Madalan. Kexa, berriz, nor-

baitek bere jatorrizko lekura eramán zituelako izan da.

◆ Gazte talde batek ere **Gaztetxea** txalotu nahi du bai kontenedoreak lekuz aldatzegatik bai Gaztetxea hain txukun eta polit margotzegatik.

## BAI, ESAN?



Jesus Hoyos  
Garraiolaria

Azken bi asteotan beste notziarik ez da izan albistegietan: garraiolarien greba. Enpresa, denda eta gasolindegietan eskasia; garraioak helikopteroz egin beharra, gasolina Ertzantzak lagunduta banatu beharra eta beste buruhauste asko eragin ditu aipatu grebak. **JESUS HOYOS garraiolaria** da eta berak ere greba egin du. Gai honen inguruan zer iritzi duen jakin nahi izan dugu.

– **Zergatik egin duzu greba?** - Garraiolariok eskatzen duguna logikoa delako, hau da, beste edozein langilek dituen oinarrizko eskubideak direlako. Greba hasi aurretik egon behar zen konponduta arazo hau. Grebarekin argi geratu da garraiolariak min handia egin dezakegula, nahiz eta gure asmoa ez den mina egitekoa izan.

– **Zein izan dira garraiolarien eskakizunak?** - Bat: aurrejubilatze aukera izatea. Bi: gaixotasun profesionalak kontuan hartzea, adibidez, %99ak gerria eta bizkarrezurra zizko eginda daukagu. Eta hiru: nekazari eta arrantzaleei bezala, garraiolariok ere, gasoil industrialak kartila baten bidez eskuratze eskubidea ematea. Guk ez dugu nahi gasolindegiko gasoila bost pta. merketzea, errekinaren prezioen liberalizazioarekin bihar edo etzi errekin beste 5 edo 10 pta.n garestitu dezakete eta. Guk kontsumitzen dugun gasoil litro bakoitzeko 46 pta. gobernuarentzat dira, zerga hutsa da. Beraz, gobernu ministro horiek gure eskubideak aintzat hartu beharko litzukete.

– **Azkenean greba deskonbokatu eta badirudi ez direla zuen eskakizunak bete.** - Ez. Greba hasi aurretik ere argi zegoen gauzak berdin jarraituko zutela. Hala ere, espero dut negoziatzen jarraitzea eta azkenean gure eskakizunen bat lortzea.

## ASTE SANTUA - MARTXOAREN 27tik 31ra

# Classy

San Frantzisko, 56  
Tel-Faxa: 74 02 40  
20870 ELGOIBAR

PENSIO OSOKO EGONALDIA AIPATURIKO HOTELETAN.  
GALDE EZAZU BESTE TOKI ETA HOTEL BATZUEI BURUZ:

LLORET DEL MAR - Beltran Park H. ★★	16.400
BLANES - Esplendid Hotela ★★★	14.400
SALOU - Oasis Park H. ★★★	19.100
BENIDORM - BERMUDAS H. ★★	15.800

HAURRENTZAKO DESKONTUA: 1.a DOHAINIK. 2.a PREZIO ERDIAN

JOAN-ETORRIKO AUTOBUSAK

COSTA BRAVA	6.500
COSTA BLANCA	6.500
COSTA DORADA	6.000

IRTEERAK EIBARTIK

# 200 baserriak gora liburu

*Altzola, Arriaga, Sallobente, San Migel, San Pedro, San Roke eta Urruzuno. Horiek dira Elgoibarko 7 auzoak. Duela urtebete DEBEMEN (Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkarte), herriko baserri buruzko gida-liburu bat argitaratzeko asmotan lanean hasi zen. Eta bihar, larunbata, izango da libururaren aurkezpena: "Elgoibarko Baserriak. Gida-liburua".*

Lehen aldia da horrelako liburu bat egiten dena Elgoibarren. Iaz, 1996. urtean, 650. urteurrena ospatu zuen Elgoibarrek herri bihurtu zenetik. Data berezi hori zela eta, Asier Albizu DEBEMENeko gerenteak baserri guztiakin zerbait egiteko ordua bazela eta ideia martxan jarri zuen.

Auzo guztietako alkateekin bilera bat izan eta hauek arduratu ziren lehen urratsak emateaz, hau da, baserri guztietan fitxa moduko bat banatzeaz. Urriari, Jasone Osoro kazetariak hartu zuen lanaren koordinazio eta ardura.

## 200 baserriak gora

Fitxak jaso behar ziren, baserri guztiei argazki bana atera behar zitzaizkien eta datu horiek guztiak esku artean, liburu erredaktatzea geratuko zen.

Zorionez eguraldi aldetik ez zen arazo handirik izan. Kontuan izanik udazkena bete-betean sartua zela eta egun euritsuak Euskal Herrian egunero gauza izaten direla, astebukaera dexente eguzkitsu eta garbiak esnatu ziren sasoi hartan. Horrela bada, Jasone eta auzoetako alkateak kotxea hartu eta kamera eskuan, baserriz baserri joan ziren erretratuak ateratzera. 200 baserriak gora dago Elgoibarren.

Halere, gida-liburu honetan baserri guztien berri ematerik ez zegoenez, irizpide bat jarraitu behar eta betidanik izan diren baserri heldu zitzaizkien. Horietariko bakoitzari buruz hainbat datu biltzen dira liburuan, besteak beste zein distantziatara dagoen herritik, zein bizi diren bertan, esplotazioa, hedadura eta abar.

## Zenbait kontu

Datu bilketa egiterakoan, aurrez aipatutako guztiez gain, bestelako kontuak ere eskatu zitzaizkien baserriarrei. Esate baterako, ea pertsonaia ezagunik jaio izan den noizbait baserrian, arkuirik duen, sekula erre izan den edo beste eratako gertakizunik ezagutzen duten... Baserriarrek esandakoekin eta liburu batzuetan topatutakoarekin bitxikeria dexente jakin zuen egileak eta horien berri ere ematen da.

## Auzoz auzo

Auzoz auzo egituratu da liburuak. Auzoari buruzko argazki batekin banatzen da libururaren atal bakoitza eta jarraian mapa bat dator, bertan baserri bakoitza non kokatzen den azaltzen delarik. Era berean, egileek ez zuten baserri buruzko fitxa arrunta izatera mugatzerik nahi eta bestelako datu eta istorioak lortzeko asmotan, auzo bakoitzeko hainbat baserriarrek elkartu eta beraiekin jardun zuen egileak berriekin. Haiek bai esan zizkiotela kontu mordo bat, horietako asko eta asko ezezagunak gehiengoarentzat. Esate baterako, gaur egun guztiok ezagutzen dugun Mintxetako futbol zelaia baino lehen Lerungoa izan zela gehienok dakigu, baina ziur oso gutxi ezagutuko dutela Lerungoa baino lehen non kokatzen zen futbolearen aritzeko zelaia. Dirudienez, San Roken, Azkue baserria dagoen inguruan hain justu, ba omen zegoen futbol zelairik. Elgoibarrek ezagutu zuen lehena. Eibartarrek ere ez zeukatenean non jokaturik, oinez etortzen omen ziren Elgoibarre eta bertan aritzen ziren entrenatu eta elkarren arteko norgehiagokan.

## Sagardoa altare azpian

Bestelako anekdota bitxirik ere bada. Arriagan, esate baterako, autopista egin aurretik San Antolin izeneko er-



Zabale Torre (Arriaga)



Urruzuno (Urruzuno)

# batean

mita egon zen. Haren inguruan festa oso ezagunak antolatzen ziren urtero irailaren lehen egunetan eta ingurueta-ko jende mordo bat hurreratzen zen zezenetara, dantzara... Gainera, ermitaren goiko aldean, koruko partean sargardoa egiteko toleara zegoen eta botilak altare azpian gordetzen zituzten. Beste garai batzuk ziren dudarik gabe. Autopista egiteko ermita bota zutenean, auzo hark zuen bizitza guztia desagertzen hasi zen. Gaur egun taberna ondoko lokal batean egiten dituzte elizkizunak sanantolindarrek.

San Migelen, berriz, benta izan zen. Hara hona errepedean ibiltzen ziren bidaiariak bentan egiten zuten paradaxoa, zerbait hartu edo gaua pasatzeko asmotan. Gainera, taberna ezezik, dendatxo txikia ere bazuten sanmigeldarrek erosketak egiteko bai eta bizartegia ere, ilea moztu eta bizarra txukuntzeko.

Auzo bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta horien berri ematen da liburuan bai eta baserritarren bizimoduan egon izan diren aldaketen berri ere. Baserritarrek ezezik, kaletarrek ere badute aurrerantzean herriko kontuak are gehiago sakontzeko aukerarik. Lehen aldiz, Elgoibarko baserriak bildu dituen liburua argitaratu da, bihartik aurrera salgai izango dena.

## "Kaletarrentzat ere erakargarria izango da liburua"

- Nola sortu zen liburua egitearen ideia?

- Lehenengo nozioa oin dala hiru urte hasi zan, Deba Beheko baserrien inventario moduko bat, datu base bat egin nahi gendula eta. Komunikabideek egiten duten lehenengo galdera beti izaten da Deba Behean zenbat baserri dauden eta ez zakagun inon jasota baserri zerrendarik. Eta iaz Elgoibarrek 650. urteurrena betetzen zenez, aproposa iruditu zitzaigun liburua argitaratzeko.


- Urtebeteko lana izan da.

- Bai, iazko otsail aldera hasi ginen bilera egiten. Lehenengo lana auzoetako alkateekin hitz egitea izan zen, euren jarrera zein zen ikusi eta horren arabera lan egiteko asmoz. Euren elkarlanean fitxa batzuk osatu genituen eta urri aldera jarri ginen kontaktuan kazetari batekin, Jasone Osororekin, lanarekin hasiteko.

- Zein izan da erabili

duzuen metodologia?

- Fitxak baserri guztietan banatu ziren eta baserritarrak izan dira datuak bete dituztenak. Gero, kazetaria auzoetako alkateekin



*Asier Albizu*

DEBEMENeko  
gerentea

ibili da baserri baserri argazkiak ateratzen, datuak jasotzen, telefono deiak egin, liburuak kontsultatzen...

- 200 baserritik gora daude.

- Bai, baserri asko dago Elgoibarren. Eta liburu honetan kanpua laga ditzugu azken ur-

tiotan eraiki dian etxiak, betidanik egon dianak jaso ditzugu. Euren esplotaziua zein dan, zeintzuk bizi dian eta historixa aldetik ere dakixen guztia, pertsonajiak...

- Baserritarren-tzat ezezik, kaletarrentzat ere bada liburua.

- Bai. Baserritarrentzat logikoki euren baserriak agertzen diazelako, euren bailarakuak, euren historixak... Baina kaletarrek ere ezagutu ein bihar dabe euren herrixan badaudela bailara batzuk, baserri mordo bat eta bakoitzak bere historixa dakala. Kaletarrentzat ere liburua erakargarria izango da.

- Baserriak desagertuko al dira?

- Erreminta makina desagertuko al da? Erantzuna jakingo bagenu guztiok batean edo bestean inbertituko genuke. Kontua da sektore guztiak egoera berrietara egokitzen direla eta baserri munduarekin ere hori gertatuko da.



*Bertoso Berri (San Migel)*



*Arraitza (San Pedro)*

# Ikusten diozu irtenbiderik Euskal herriko indarkeriari?



**JOSE MARI LEIZABE**  
34 urte, elektrizista

Egon beharko litzateke irtenbide bat. Gutxi gara eta gure artean ezin konpondu gabiltza eta inork ez du etsi nahi. Oso zaila da esatea zein den soluzioa.



**JOKIN TXURRUKA**  
24 urte, mekanikoa

Irtenbidia egongo da. Nik uste dot lelengo negozioau ein bihar dala, berba ein bihar dabe danak eta adostasun batera ailegutzen saiatu, bestela alperrik da.



**VERONICA SARMIENTO**

23 urte, kamarera

Gauzak gero eta okerrago daudela uste dut nik, bi aldeetatik gainera. Aukera guztiak aztertu beharko lirateke irtenbidea topatzeko, eta lehenik eta behin elkarriketa.



**NEREA GARITAGOITIA**

20 urte, ileapaintzailea

Pentsatzen det azkenian urtengo dala zeozer nunbaitxetik baina gauzak txarrera duazela ematen dau. Ez dakit zein izan laiken irtenbidia, ez dakat garbi.



**M. TERESA ARANBERRI**

52 urte, gaixo zaintzailea

Nik pentsatzen dot politikuen lana dala. Euren artian berba ein bihar dabe eta erreferendum bitxartez ikusi ia gehienguak independentzia nahi daban.



**ANSELMO CADUETO**

37 urte, margolaria

Ez dut irtenbiderik ikusten gauzak dauden bezala. Batek nahi ez badu besteek ezin dute. Nire ustez alde batek besteak baino gehiago zeditu beharko luke.

**KEMEN** Belardenda



*Estutasuna, antsietatea, depresioa, lo ezina, tabakismoa, loditasuna, fobiak, ... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!*

**NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practitioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI - Osatze naturalaren USUI sistema**

San Bartolome 25 · Tel: 74 40 31 · ELGOIBAR

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

**BOUTIQUE DEL PAN**

**Enpanadak**

**Enbutidoak**

**Baserriko ogia**

**Bolleria**

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



# ISPILUA- BERRI DEGIRA




*Jerónimo  
Angulo*

Basco Rent-ekoa

- **Zer alokatzen duzue?** - Autobusak, kotxeak eta furgonetak.
- **Ezkontza baterako zein auto alokatuko zenuke?** - Mercedes bat, orain hasi behar gara zerbitzu hori eskaintzen.
- **Zein ekintzatarako utziko zenuke autobus bat debalde?** - Askotarako, esate baterako Santa Agedako koruetarako urtero utzi izan dut furgoneta txiki bat.
- **Bizitzako zein garaitan azeleratuko zenuke denbora?** - Negozioarekin lotutako garairen batean beharbada.
- **Eta noiz emango zenioke esku-frenoari?**
- Oraingo egoera mantendu nahi nuke beti.
- **Siesta zalea?** - Oso, egunero gutxienez ordu erdi.
- **Bizitza maileteroa balitz, zer gordeko zenuke bertan?** - Astebukaerak nire familiarekin.
- **Asmakizunik onena?** - Telefono mobila.
- **Eta ez al da agobiantea?** - Oso, baina nire lanerako beharrezkoa da.
- **Oporretarako toki bat?** - Laredo edo Algarvea.
- **Kotxerarentzat gustatzen ez zaizun kolorea?**
- Beltza.
- **Eta aproposena?** - Berdea.
- **Gasolina ala diesela?** - Diesela.
- **Afiziorik ba al duzu?** - Submarinismoa, itsasoko kirolak, ehiza...
- **Isunak ordaintzen al dituzu?** - Ahal badut ez.
- **Hartuko al zenuke parte kotxe-lasterketa batean?** - Hartu izan dut baina ez zait gustatzen.
- **Sagardortegien garia da. Lan asko?** - Dexente igertzen da. Lehen, Errioxa aldera jetaen zen jendea.

# GIDA komertziala 97 ZUZENKETAK



GIDA komertziala 97 - ZUZENKETAK	
Zuzendu itzazu mesedez Gidan gaiak eta gaituen datu hauek. Moztu marraztoetatik eta pegatu dagokion orrialdean:	
<b>GABILONDO</b> INMOBILIARIA San Francisco, 61.1. Tel. 74 46 67 ELGOIBAR (Gipuzkoa) 43. orrialdean	<b>Toki Alai</b> Jabetza-Jabetza Mendizabal, 15 Tel. 75 60 72 - MENDABO 61. orrialdean
<b>IRIONDO, S.A.</b> Inbentarioa Mendizabal, 15 Tel. 75 60 40 - MENDABO 59. orrialdean	<b>Marina</b> ZAPAIADENDA Bona eta gaituen datuak eta inbentarioa Errioxa 11 - P. 10 - ERRIOXA 54. orrialdean
<b>Etara</b> Neurtzaile, S. Coop. Autonomia, 1 ..... 74 37 05 58. orrialdean	<b>TAXIAK</b> Fernando Moreno ..... 908 77 12 02 Gemma Jubi ..... 908 67 12 96 Jorge De La Merced ..... 908 67 19 67 Jose Luis Bolter ..... 908 67 04 65 Sabio Beristain ..... 907 44 55 66 Victor Gonzalez ..... 908 77 24 31 Quiroga ..... 74 08 98 53. orrialdean
<b>Hiri Institutua</b> Arreturte ..... 74 02 67 41. orrialdean	<b>Fitcha</b> San Bartolome, 16 ..... 74 16 30 54. orrialdean
	<b>Bustico</b> ..... 45 01 31 9. orrialdean

*Aizu irakurle!*

Aste honeko alearekin batera gida kamertzialaren zuzenketa orri hau banatuko zaizu. Zuzendu itzazu mesedez Gidan gaiak atera genituen datu hauek. Moztu marratxoetatik eta pegatu dagokion orrialdean.

## ● Urnoblitzako hegazkin istripuaren 50. urteurrena

Herriko nagusiek gogoratuko dute seguruen 1947ko otsailaren 22an Urnoblitzako gailurraren inguruan gertatu zen hegazkin istripua. 50 urte pasatu dira ordutik. Pako Iriondo Mendizale Federazioio lehendakariak kontatu digunez, lainoa zegoen egun batean militarren hegazkin batek tontorra ikusi ez, eta lurraren kontra jo zuen. Hegazkinean zihoazen bospasei militarrek bertan hil ziren. Urnoblitzara bidean istripuan hil ziren militarrek eta istripua geratu zen eguna gogoratzen dituen harri bat dago.

## ● 158.827 pta. bildu ziren Santa Agedan

Santa Agedako koruek bildutako dirua zenbatu ondoren, 158.827 pta. izan da gastu guztiak kendu ondoren geratu den diru garbia, hau da, Caritas elkarteari emango zaiona. Bestetik, egunean bertan izandako gastuak 76.832 pta.koak izan ziren. Aurten Santa Agedako koruetan beste urte batzuetan baino jende gehiago ibili da, 65 lagun denera. Antolatzaileek eskerrak luzatu nahi dizkiete parte hartu eta eskupekoak eman zituzten guztiei bai eta Donostian dauden elgoibartarrei ere, emandako 25.000 pta.rengatik.

## ● Udal Liburutegia informatizazio bidean

Liburutegia informatizazio prozesuan ari da. Prozesua 1995ean hasi zuten, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzari esker. Absys programari esker liburu bat topatzerakoan lana asko erraztuko zaie aurrerantzean. Prozesu honen barruan bazkide txartel berriak egiten ari dira, horretarako bi argazki eta NANaren fotokopia eraman behar direlarik.

## Udal Gazte Batzordea Gazte Asanbladarekin elkarnerako prest dago

Udalak Gazte Batzorde bat eratu berri du gazteriaren arloan dauden hainbat hutsune eta beharrei erantzuteko asmoz. Gotzon Arrieta Gazte Batzordeko kideak esandakoaren arabera, batzorde honen lehen bilera asteazken iluntzean izan zen Gazte Asanblada eta Gakoako ordezkariekin. Izan ere, joan den astean Gakoako ordezkariak Alkatea eta Gazte Batzordeko bi kiderekin bildu eta Udaletxeko norbait Gakoako kideekin batera Alkortarekin hitz egitera joateko eskatu zieten. Asteazkeneko bileran Gakoakoak erantzuna entzutera joan zirenean, Udal Gazte Batzordekideen ahotik beste proposamen bat

jaso zuen. Gotzonen esanetan, "Alkortarekin elkarriketatzeko orduan Udalaren papera oso garbi ikusten ezenez, lokalaren negoziazioa Udal Gazte Batzordearen esku uztea proposatu genien. Lehenik eta behin, funtzionamendu arau batzuk planteatu genizkien txosten batean bilduak ordutegia zein izango den, garbitasuna, itxura eta batez ere, lokal hori ahalik eta gazte gehien bilduko dituen lokala izatea". Gakoako kideen usiez "proposamen berria da eta eurek aurkeztutako txosten hori asanbladan aztertzeke asmoa dugu".

Gazte Batzordea Kultura Batzordeko appisail bezala sortu bazen ere, operatibo izateko, batzorde independente bat eratu zen. Lau kide aukeratu ziren botazioz: Ana Santolaya (PNV), Gotzon Arrieta (PNV), Ales Arrieta (EA) eta Juan Carlos Marcos (HB). Batzorde honek erabaki ahalmena ere.



## Martxoaren 21ean pasatuko da Korrika

Martxoaren 21ean, ostirala, eguerdiko 2,30ak aldera Saturixion testigua hartu, herriko kaleak zeharkatu eta Mendarorantz abiatuko da 10. Korrika.

Korrika pasatuko den aitzakiaren bueltan, hainbat ekitaldi antolatu ditu AEK-k aurretik. Martxoaren 8an kafe-antzerkia izango da Lanbroa tabernan eta antzeztuko den obra "Igurtzi nazazu berriz lazтана" izango da, Mikel Markez abeslaria, Jose Mari Carrere ipuin kontalaria eta Asier Serrano poeta eibartarraren partehartzearekin. Martxoaren 14rako, berriz, AEK eta Ongarri Zine Klubaren ekimenez, Alazne Lazkanoren "Urte ilunak" pelikularen eman-kizuna antolatu da.

Korrika bi urtetik behin antolatu ohi da bai Iparraldean bai Hegoaldean euskara suspertzeko asmoz bai eta ekonomikoki AEKrentzako diru-laguntza lortzeko. Korrika egunean bertan partehartzeaz ezezik, herritarrek ekonomikoki lagundu ahal izango dutela ere azaldu zuten AEK-ko ordezkariak. Batetik, Korri-

karen lekukoa eramateko aukera izango dute Kilometro bat erosten dutenek. 25.000 pta.n dago salgai, hala ere, AEK-k argi utzi zuen kopuru hau ordaintzerik ez duten elkarteak ere aintzat hartuko dituztela. Honez gain, martxoaren 8an kuestazioa egingo da enpresa, denda eta kaleetan zehar.





ALFONSO RUBIO

## Helikopteroak, ez-ohiko garraiolariak

Garraiolarien greba dela-eta, joan den asteartean helikoptero batek bi aldiz batu zuen Alkorta lantegian materiala. Zaragozako General Motors-ek Alkortan egiten diren gurpilentzako giltzak helikopteroz garraiatu behar izan zituen. G. M.-i piezak zein prezioetan atera zaizkion kalkulatzeko nahi baduzue, jakin, helikopteroa ordubetez alokatzeak 200.000 pta.ko kostua duela.



## Amaitu dira sexuari buruzko hitzaldiak

Hiru astetan zehar, gustura egon da jendea Elgoibarko Izarrak antolatutako sexu zikloko hitzaldiak entzuten. Amaia Vazquez sexologoaren gidaritzapean, sexuari buruzko hainbat gai buruz berba egin dute bertara hurreratu direnek. Batzbestea, hogeita sei lagun inguru joan da saio bakoitzera, eta jendeak gai honen inguruan oraindik ere jarduteko dauzkan pegak ikusi ahal izan da.



## Italiarrak IMHn

Italiako Bolzzanoko Galileo Galilei Institutu Tekniko-Industrialeko 11 ikasle eta 2 irakasle Erreminta Makinaren Institutuan daude fresadora eta tornuen CNCari buruzko ikastaro bat egiten. Elkartrukean, elgoibartar talde bat Bolzzanora joango da martxoaren 31tik apirilaren 12ra bitartean.

## ● Meningitis-ik ez Elgoibarren

Meningitis gaixotasunaren inguruan hainbat lekutan sortu den kezka dela-eta, Mendaroko ospitaleko gerentea den Iñaki Unzagari deitu diogu meningitis kasurik gertatu den jakiteko. Bere esanetan, "bi kasu baino ez ditugu izan gure ospitalean urtea hasi zenetik, eta hori erabat normala da, urtero bezala. Beraz, ez dago esaterik inondik inora epidemia edo antzekorik dagoenik, egoera erabat normala da". Iñakik adierazitakoaren arabera, meningitis kasuak neguan gehiago izaten dira udan baino.




## BARRENen erredakzio kontseilu berria

Erretratuan azaltzen direnek osatzen dute BARRENen Erredakzio Kontseilu berria. BARRENeko zuzendaria den Ainhoa Lodosoren gidaritzapean, Andres Alberdi, Mikel Kortabitarte eta Rosa Agirregabiria BARRENen filosofia eta irizpideak zaintzeko ardura dutenak dira. Astean behin bil-tzen da kontseilua, asteazkenetan, eta asteko alearen azterketa egiten dute taldean.

## Leizarpe Espeleologia Taldearen erakusketa Kultur Etxean

Leizarpe Espeleologia Taldeak urtero antolatzen duen erakusketak atak ireki zituen joan den larunbatean. Bertan espeleologo batek erabiltzen dituen hainbat teknika eta material ezberdin dago ikusgai. Kanpamendu bat nolakoa den, argazkiak atera-tzeko materiala, jan-tziak, sokak bai eta topografia tresneria ere nolakoak diren jakiteko aurkera dago Kultur Etxeko erakusgelatik pasatuz gero. Erakusketa hilaren 15era arte egongo da zabalik. Orduetgia: goizeko 10etatik 1era bitartean eta arratsaldeko 6etatik 9ak arte.



● **Ubitarterako bankuak eskatu ditu PPko zinegotziak**

Juan Carlos Abian PPko zinegotziak helarazi digun idatzi batean Ubitarterako eserlekuak jartzeko eskaera egin du Udaltxean. "Duela bi urte hurreratu zitzaizkidan herritarrak eskaera horrekin baina alkateak aurretik bazeudela eta bi banku berri jartzeak 80.000 pta.ko kostua suposatzen zuela esanez ezezkoa eman zidan". Halere, PPkoaren ustez, "beste toki batzuetan jarri eta kostua 970.000 pta.koa izan da. Beraz, Ubitarten aspalditik zain daudela jakinda kasu egin beharko litzaieke".

● **Hondakinen bilketarako zerbitzua**

Deba Beheko Mankomunitateak hondakinen bilketarako zerbitzu berria martxan jarriko du martxoan. Zerbitzu honen helburua gurpilak, egurrak eta eskonbroak birziklatu eta balorizatzea da, gaur egun papera, kartoia eta pilekin egiten den moduan. Hondakinak Berreskura-tzeko Biltegia Urruzunon kokatuko da, Soraluze, Elgoibar eta Mendaroko herrien eremuak hartuko dituena. Hiru motako hondakinak jasoko dira, bakoitzak bere kontenedorea izango duelarik: gurpilentzat bat (bizikleta, motor eta autoenak), egurrentzat (paletak, aglomeratuak, oholak, kaxak...) beste bat, eta hirugarren bat obretako zakar edo eskonbroentzat (adreiluak, hormigoia, igeltsua...). Hondakin hauek norberak eraman beharko ditu Urruzunon jarriko diren kontenedoretara.

**Autoaren azterketa egiteko zerbitzua martxan da Elgoibarren**

*Kontsumitzaileen Udal bulegoak martxan jarri du autoen errebisiorako zerbitzu berria Eusko Jaurlaritza-CADEMen laguntzarekin. Otsailaren 17an hasita eta martxoaren 7ra bitartean izango da aipatu azterketa egiteko aukera San Roken, Guardia Zibilen koartela zegoen tokian hain justu.*



*Goardia Zibilen koartela zaharrean dago kokatua ibilgailuen azterketarako zerbitzua.*

**A**utoek urtero egin behar izaten duten errebisioa dela-eta jarri du martxan Udalak azterketa zerbitzua. Azterketa hauen ondorioz autoak behar duen errekin aurretik du, kutsadura murrizten, berebilek gehiago irauten dute eta autoz ibiltzea ziurragoa izaten da.

Azterketa osoa egin nahi ez duenak edo behar ez duenak aukera du murriztua egiteko (eskapeko gasen kontrola eta errekinaren kontsumoa) 500 pta.gatik. Zerbitzuaren zenbatekoa 1.300 pta.koa da eta alboko koardroko puntuak aztertuko dira.

**Martxoaren 7ra arte**

Otsailaren 17an jarri zen martxan zerbitzua eta martxoaren 7ra arte iraungo du. Ordutegiari dagokionean, astelehenetik ostiralera bitartean izango da goizeko 11etatik 14,00etara eta arratsaldeko 16,00etatik 19,00etara. Beharrezkoa da azterketa egiteko egu-

na eta ordua aurrez zehaztea bai tokian bertan (San Roken, lehen Guardia Zibilen koartela zegoen tokian edo 908 97 23 41 telefono zenbakira deituz).

**Autoaren ondoko puntuak aztertuko dira:**

- Estankotasun mailaren kontrola.
- Zilindroen konpresioa.
- Bateria eta kargatze zirkuitua.
- Banagailuaren kontrola.
- Pizte sistema.
- Gasolina eta karburante bonbaren kontrola.
- Eskape gasen frogaketa.
- Karburantearen frogaketa.
- Gurpilak.
- Argiak.
- Amortiguazioaren kontrol bisuala
- Bolantearen mugikortasuna.



**V. URTEURRENA**

*Duela 5 urte hil zen JUANJO SAN MARTIN OTEGIren oroimenez, URTEMEZA izango da larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 7etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak, alde zurretik.*



*Javier Arrillaga Totorika duela 34 urte Mexikon jaio zen. Halere, abizenetan ikus daitekeen bezala, gurasoak euskaldunak ditu. Eta berak ere, Javierrek, ondo baino hobeto hitzegtzen du euskaraz, txikitatik etxean ikasi duen hizkuntza da eta. Danobatek Mexikon duen delegazio batean egiten du lan eta hilabete honetan Elgoibarren izan da, makina berri bat eramanez behar dutela eta. Egondia aprobetxatuz berarekin izan gara berbetan eta kontu mordo bat esan dizkigu.*

# JAVIER ARRILLAGA

## “Mexikon jaixak ez dia hemen bezela jatekuakin ospatzen”

– Gurasoek orain urte asko lana zela-eta aldegin zuten Mexikora.

- Bai, 36 urte edo. Ni eta anaia han jaio ginen.

– Emigranteen semeak nongoak dira?

- Ez nago oso ziur. Ni Mexikon espainola naiz eta Elgoibarren mexikanoa. Azkenean ez dakizu nongoa zaren edo toki guztietatik pisikat daukazula iruditzen zaizu.

– Umetan euskara irakatsi zizuten gurasoek.

- Bai, etxian euskeraz eitzen gendun dana eta handik kanpo espainola eta inglesa ikasten da. Gero bastante galtzen da baina oin dala urte batzuk Elgoibarren 6 hilabete pasau nitxun eta aitzitxakin eta asko eitzen nabanez berba euskeraz soltura hartzen dozu.

– Ba al dago Euskal Etxerik Mexikon?

- Bai. Gazteagoak gineanean joaten ginen. Han bazkariak egiten dituzte hemengo erara, batek soinua jotzen

du, besteak txistua, euskal musika eta dantzak...

– Nolako imajinatzen zenuen Euskal Herria etorri aurretik?

- Lelengo bider etorri nitzanian 5 edo 6 urte nakan eta ez nintzan oso konsziente. Orduetik ia urtero edo bi urtean behin etorri izan naiz eta oso ohituta nao, ez da izan zeozer desberdina.

– Mexiko D.F-en bizi zara.

- Bai, ia 20 milioi pertsona bizi gara. Han, lanera juteko ixa 25 minutu bihar ditzuzu kotxez. Ez daka zerikusirik honekin. Elgoibarren oso lasai bizi zarete, ez dago han dagoen kontaminazioa...

– Baina etorriko al zinateke bizitzera?

- Ba igual bai, ez dot ikusten hain desberdina.

– Mexikon jendearen artean desberdintasun handia dago, ez?

- Bai. Toki berdian iku-si laike jendia BMW batekin eta eskoltiakin eta onduan jendia kalia eskatzen. Hala ere, pobriak oso barrixo kon-

kretuetan bizi dia.

– Jaiak nolakoak izaten dira?

- Han ez da hemen bezela mahai baten bueltan ospatzen dana. Han, ezkontza baten ere, parejia ezkondu eta gero danak juten dia diskoteka edo saloi batera eta edan eta dantzan eitzen da. Eta gero igual, zeozer jan. Baina jatekuari ez jako ematen hemengo inportantzia.

– Zer du berezia Mexikok?

- Kapitalian bertan museo oso politxak daude eta bestela kostia ere oso ederra da, Cancun, Guadalajara, Acapulco... Hala ere, nerezat Acapulco fama gehixo daka benetan dana baino.

– Igerilaria omen zara.

- Lehen konpetizuetan ibiltzen nitzan baina oin lagata dakat. Hala ere, iazko azaruan Acapulco-ko bahian urtero eitzen dan lehiaketa batian hartu naban parte. “El reto” deitzen da eta 6 km. ein bihar dia igerixan croll estiluan. Ni hirugarren ailegau nitzan eta 6 kilometruak ordu 1 eta 52 minutuan ein nitxun. Gustura geratu nitzan eta datorren urtean igual berri eingo dot.

– Ez al da gorrora?

- Ordu erdiro geratzen nitzan ura edateko. Gainera, han daude medusa moduko batzuk besuan lotzen dianak. Bi egun egon nitzan haiek pikautako markekin.

– Esaiguzu zeozer mexikanoz.

- “Que onda?” esaldixak, porejemplo, zer gertatzen da esan nahi dau edo “está padrísimo” ere asko erabiltzen da oso politxa edo oso ona dala esateko.

– Eta ahorita?

- Bueno! Ahorita denbora asko da baina askoz txarra da “ahoritita”, hori esaten badabe alperrik da zai egotia!

**BESTEAK ESANA:** “Ertameriketako lurralde urrunetan jaio, hazi eta bizi den lagun euskalduna dut Jabi”. AGURTZANE REMENTERIA



# Mikaela Etxeberria

(1903-1975)



- 1903ko martxoaren 15ean jaio zen Elgoibarko San Roke baserrian.
- Zortzi anai-arreben artetik zaharrena zen.
- Madalako monjekin oinarritzko ikasketak egin eta gero, zaharrena izanik, baserriko lanetan, soroan, baratzean, anai-arrebak zaintzen eta gurasoei etxeko lanetan laguntzea tokatu zitzaion.
- Oso emakume langilea eta borondate handikoa zen, emakume bikaina, ezagutu zutenek diotenaren arabera.
- Azkoitiko Zumeta baserriko Esteban Ulaziarekin ezkondu zen eta San Roke baserrian jarraitu zuten bizimodua. Lau seme-alaba izan zituzten.
- Aita gizon ezaguna zen, San Rokeko ermitan sakristaua izan baitzen hainbat urtean. Bera hiltzean Mikaelak jarraitu zuen konpromezu honekin.
- San Roke eguna iristen zenean ermita garbi txukunduta izaten zuen. Giro ederra izaten zen meza entzun eta salda hartu ostean.
- Zoritxarrez, baserria erreta ezagutu zuen. Errosario santua erreztatzen zuen egunero, sinesmen handiko emakumea baitzen.
- Zaletasunen artean irakurtzea zuen gogoko, puntu egin eta jostea.
- 1975ko uztailaren 11n hil zen 72 urterekin.

## LARUNBATERO

**LHko 2-3-4 mailak**

**Datak:**  
 Martxo: 8-15  
 Apirila: 12-19-26  
 Maitza: 10-17-24-31

**Ordutegia:**  
 16:00 - 19:00

**ZER:**  
 Irteerak, jolasak, antzerkia...

**PREZIOA:**  
 2.500 pta.

**IZENA EMATEKO:**  
 Elgoibarko Izarra K.E.  
 Ubitarte 4, behea  
 Tel. 741626

**IZENA EMATEKO EPEA:**  
 Otsailaren 24tik martxoaren 7ra

**Antolatzailea:**  
 Elgoibarko Izarrako  
 ATXUTXIAMAIIKA B.T

**Laguntzaileak:**  
 Elgoibarko Udala  
 Eusko Jaurlaritzza



**A**ste honetako erretratua **Iñaki Gabilondok** laga digu. Bertan DYNAMO izeneko futbol taldea agertzen da, 1946an, finala jokatu zuen egunean. Elgoibarko gazte kuadrilen txapelketako irabazlea izan zen talde hau, Lerungo zelai zaharrean. Orduan bai, jokatzeko astia eta gooa!

Ezkerretik hasita, hauexek dira agertzen direnak: **Imanol Konde, Sabin Beristain, Jesus Coro, Carlos Revenga, Jesus Garay, Manolo Agirre (†), Jose Maria Regil, Juan Cruz Gabilondo, Roke Gabilondo (†), Carlos Uncilla (†), Pedro Beristain (†)**. Beheko aldean, **Gerardo Garate (†), Imanol Vallejo (†), Manolo Gil eta Jose Mari Gabilondo (†)**.



**MARI CARMEN**  
**Egunero zabalik**  
**Aldizkariak eta prentsa**  
**Foteroko ogia eta gozogintza**

**Zugandik oso gertu**

P. Muguruza, 4 - Tel: 74 13 84 -



## “Koba batean zerbait topatzea zoragarria izango litzake”



### Evaristo Rodriguez

- **Adina:** 30
- **Kolore bat:** urdina.
- **Asteko egun bat:** asteazkena, txarrena pasatu eta onena geratzen delako.
- **Bizitzeko leku bat:** Deba, Mendaro edo Elgoibar, hiruretatik edozein.

– **Noiztik zaude Leizarpen?** - Hasieratik, duela 16 bat urte. Sortzaileetarikoa bat naiz. Elgoibar, Deba, Mendaro, Mutriku, Ermua, Eibar bai eta Ondarruko jendea ere ibili da Leizarpen.

– **Lau hitzetan, zer da espeleologia?** - Kobazuloetako flora eta fauna ikertzen duen kirol-zientzia. Guretzat bai kirola bai zientzia da.

– **Elgoibarren ba al dago kobazulorik?** - Karearria dagoen tokietan sortzen dira kobazuloak normalean. Elgoibarren ez dagoenez karearri handirik, kobazulo gutxi dago: San Antolinen, Erreketa baserrian bi haitzulo oso majo, iturriak ere badirenak. Hauez gain, meatzuloak daude: Urruzunon badago bat eta bertan “Niphargus” izeneko intsektuen kolonia handi bat bizi da. Kobazuloetan bizi diren kixkila modukoak dira eta itsuak dira.

– **Talaixako meatzuloari data jartzերիk bai?** - Oso zaila izango da 83an uholde batek itxiera eragin zuelako. Irekitzea lortuko bagenu noizkoa den jakingo genuke. Bertan aurkitu zuten Morterikako aizkora, brontzezko garaikoa. Data jarriko bagenio benetan brontzezkoa den ala ez jakingo genuke. Hala izanik, brontzezko bakarrenetarikoa izango litzateke.

– **Mendaro, Ekain,... hain aberatsa da leku hori?** - Oso. Dena da karearizko mendia eta zona guztia, Ermitia, Urriaga, Ekain etab. oso inportantea da. Esaterako, artzen margoak dituen leku

bakarrenetarikoa da Ekain. Magdaleniense arokoa da, Goi Paleolitikoa. Honez gain, koba oso luzeak daude, 15 kilometrokoak ere bai. Deban dagoen Aixa koba Ermitian dagoen beste batekin komunikatu nahi dugu. Batek 8 kilometro dauzka eta besteak 14. Lotzea lortuko bagenu, Euskal Herriko lehen koba integrala izango litzateke. Urte asko behar dira eta oso lan motela da.

– **Arkeologia lanik egiterik?** - Aranzadiren baimena badaukagu baina arkeologo bat beharko genuke. Eskabazioak egitea interesgarria izango litzateke. Kobazulo asko eta asko ikertu gabe daude eta hauetan sartzen zaren lehena zarea jakitea edo bertan zerbait topatzea espeleologo batek izan dezakeen ilusiorik handiena da.

– **Zer egiten du Leizarpek urtean zehar?** - Izarraitzeko haitzuloen ikerketak batez ere. Hidrografia, topografia, argazkiak egin etab. Gero iharduera hauek bultzatzen saiatzen gara erakusketen bidez. Interesa duen jendeari ikastaroak ematen dizkiegu. Honez gain, irteerak eta kanpamenduak ere egiten ditugu.

– **Zein atal da gehien interesatzen zaizuena?** - Hidrografia. Puntu altuetan kutsadura egonez gero, Mendaroko urei eragin diezaikekeen ala ez jakin dezakegu. Inoiz Azkoitiko Bentazahar-en topatu izan ditugu kutsatutako urak. Diputazioari berri ematen zaio eta hortik aurrera euren ardura izaten da.

## ESKOLARTEKO JOKOAK

### EMAITZAK (Azaroak 30, 6. jardunaldia)

#### ARETO FUTBOLA

- **Alebin neskek** ■  
Pilar Mix 4 - Herri Women's 1  
Ikas Sei 12 - Mendaro C 0  
Ikas Bder 20 - Ikas Laino 0  
Ikas Txingor 2 - Ikas Trumoi 0

#### ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■  
Mendaro A2 0 - Pilar Lakasitos 8  
Ikas Zirt 5 - Pilar Flash 1  
Ikas Txut 9 - Mendaro A1 1  
Ikas Kirol 1 - Ikas Mazarro 8
- **Benjamin neskek** ■  
Pilar Kas 5 - Mendaro B 2  
Pilar Usoak 1 - Ikas Izar 2  
Ikas Zart 14 - Ikas Izurde 0

### AGENDA (Otsailak 22, 14. ihardunaldia)

#### ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak (Ikastolan)** ■  
9,45 Ikas Otosokoak - Ikas Ilaragi  
10,30 Ikas Axelkoak - Mendaro D
- **Alebin neskek (Ikastolan)** ■  
Pilar Mix (Atsedena)  
11,15 Ikas Txingor - Mendaro C  
12,00 Ikas Trumoi - Ikas Laino

#### SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Ikastolan)** ■  
9,45 Ikas Urdin - Ipurterreak

- 10,30 Ikas Txuri - Ikas Pirri
- 11,15 Ikas Amantis - Pilar Inter
- 12,00 Ikas Trumoi - Ikas Laino
- **Infantil neskek (Pilarrean)** ■  
10,30 Ikas Gorri - Ikas Katxondak
- 11,15 Grenblins - Pilar Manchester
- 12,00 Peña Insti - Pilar Girls

#### ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak (Kiroldegian)** ■  
10,00 Ikas Txut - Ikas Lakasitos
- 10,30 Mendaro A2 - Ikas Zirt



# Gipuzkoako Eskolarteko kros txapelketa, igandean, Mintxetan

*Hilaren 23an, igandea, Mintxetako atletismo pistetan Gipuzkoako Eskolarteko Kros txapelketa egingo da. Alebin, infantil eta kadete mailatan, 800 bat korrikalarik parte hartuko dute guztira. Txapelketaren antolatzaileak Mintxeta Taldea, Atletismo Federazioa, Udal Patronatu eta Aldundia dira.*

**G**ipuzkoako herri askotako ikas-tetxeetako hurrez beteko da Mintxetako pista igandean. Goizeko 10,30etan emango zaie hasiera lehen lasterketei. Lehendabizi, alebin neska eta mutilen txanda izango da eta azkenik, kadete mutil eta neskena. Azken lasterketak hauek hasi orduko, 12ak inguru izango dira.

“Mintxetako II. Atletismo Saria” ize-na jarri diote igandeko krosari. Gipuzkoako txapeldunak nor izango diren jakiteko aukera eskainiko du igandeko norgehiagokak bai eta Elgoibarko neska-mutilen maila zer-nolakoa den ere.

## Pistako lasterketak

Mintxetako Altetismo Taldeak aurtengorako ezarritako helburuen artean, pistako txapelketak bultzatzea dago. Dagoeneko pistako lau txapelketa egin dira Mintxetan eta beste lau antolatuko dira datozen hi-

labeteotan. Horrela bada, martxoaren lean, Gipuzkoako Txapelketari dagokion bailarako lasterketak egingo dira.

## Mintxetaren etorkizuna

Mintxeta Atletismo Taldea duela lau urte eratu zen Ego-Toki Elkartek atletismoaren formakuntzan utzitako hutsunea betetzeko asmoarekin. Gurasoak eta zaletuak dira taldearen pisua daramatenak. Gaur egun 30 bat gaztetxo daude taldean eta argi dago ilusiorik behintzat ez zaiela falta.

## Lasterketen distantziak

- Alebin neska . . . . . 1.738 m.
- Alebin mutilak . . . . . 2.676 m.
- Infantil neska . . . . . 1.926 m.
- Infantil mutilak . . . . . 3.752 m.
- Kadete neska . . . . . 2.676 m.
- Kadete mutilak . . . . . 5.628 m.



Mintxetako sariaren bigarren edizioa da aurtengoa.

## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 3 - Bergara 2 (neskak)  
Pedrusko 5 - Zestoa 1 (2. erreg.)  
Elgoibar 4 - lagun Onak 2 (Oho. inf.)  
Elgoibar 0 - Ordizia 2 (Oho. jubenilak)  
Zorroza 3 - Haundi 4  
Alaña Mendi 2 - Elgoibar 0 (1. erreg.)  
Beasain 1 - Elgoibar 1 (kadeteak)  
Elgoibar 1 - Texas Lasartearra (2. jub.)

### Saskibaloia

Elgoibar 49 - Oriegi 54

### Eskubaloia

Unceta Elg. 18 - Zarautz 9 (Kad. neska)  
Pneumax Elg. 26 - Egia 15 (Kad. mut.)  
Pagoa Elg. 30 - Urola 9 (Jub. neska)  
Tecnomeca Elg. 29 - Ordizia 17 (Jub. mut.)  
Hyundai Elg. 21 - Alaña Mendi 27 (Seniorrak)

### Areto futbol

Elgoibar 3 - Boulevard 2 (1. maila)  
Elgoibar 6 - Boos 3 (Autonomikoa)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 22  
10:00 S.D. Eibar - Arrasate (Kadeteak)  
12:00 Eibar - Beasain (Oho. kadeteak)  
14:00 Urki B - Dunboa (2. jubenilak)  
16:00 Elgoibar - Intxaurren (Neska)  
17:45 Gazteak - Pedrusko (2. erreg.)  
Igandea, 23  
13:30 Eibartarrak - Lagun Onak (Neska)  
16:00 Beti Sutan - Eibartarrak (2. erreg.)  
17:45 Gazteak - Aierru (2. jubenilak)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 22  
17:00 Elgoibar - Zarautz (Jub. mut.)


### Futbitoia, Kiroldegian

Igandea, 23  
9:00 Orbela - Berrogei Duro  
10:00 S. Pitxote - Aurten Bai  
11:00 Kunta Kinte - Zazpi  
12:00 Udaberri - Karkis

### Atletismoa, Mintxetan

Igandea, 23  
10:30 Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa

## KIROL ALBI STEAK · KIROL ALBI STEAK



AITOR ZABALA

### ● Bidebieta eskubaloia taldeak Leticia Astray fitxatu du

Leticia Astray, Elgoibarko Eskubaloia taldeko jubeniletan jokatzeko duen 16 urteko gaztea, Donostiako Bidebieta taldeak fitxatu du. Orain dela bi aste jaso zuen berria elgoibartarrak, “asteburuan hasiko naiz entrenatzen baina lehen partidua noiz jokatuko dudan ez dakit”. Fitxaren nondik-norakoak zehaztu gabe dauden arren, elgoibartarrak pozik hartu du notizia. “Euskal Ligan jokatzeak aukera izango dut, nire kategoriako gorengo mailan”. Datozen denboraldian taldean jarraituz gero, Ohorezko mailan jokatzeak aukera izango luke Leticiak. Argazkiaren eskuman defentsan agertzen dena da.

### ● Arrantza lizentziak

La Unión elkarteak martxoaren 16an arrantza denboraldia hasiko denez, federatu lizentziak tramitatzeko epea martxoaren 10ean amaituko dela jakinarazi nahi du. Gestioa egiteko elkartetik pasatu astelehenetan 7etatik 8etara bitartean. Hilaren 10ean zozketa egingo da arratsaldeko 8etan San Lorentzo errekarako. Era berean, gogorazti tiroko federatu lizentziak ere dagoeneko egin daitezkeela.



## Mikel Hernandez Abaituaren "Ahotsak" liburua kalean

Mikel Hernandez Abaitua 38 urteko idazle elgoibartarra bere azken lana argitaratu berri du. Urtarrilean egin zuen "Ahotsak" ipuin-bildumaren aurkezpena Bilbon. Idazleak adierazi bezala, "Ahotsak", hiru ipunek osatzen dute, "Lehen ahotsa", "Bi ahots" eta "Azken ahotsa" izenekoak. "Lehen ipuna Egunkariak eskatuta idatzi nuen. Aurretik beste bat idatzi nuen ETAK gure eskolako ikasle bat hil zuenean. Erein argitaletxeak ipuin bilduma bat egiteko proposatu zidanean hirugarren bat idaztea erabaki nuen". Euskal Herriko egoera sozio-politikoari buruzko istorioak dira, "azken ipuinean literaturari eta bizi dugun egoerari buruz ere hitz egiten da". "Mila bidai" bilduman argitaratu da eta 60 orri ditu.

Mikel Hernandez Abaituak 3 narrazio liburu, nobela bat eta saiakera liburu bat idatzi ditu gaurdaino. Gaur egun Ategorrietako Institutuan euskara irakaslea da eta momentuan tesi doktoralean buru-belarri lanean ari denez, datozen urteotan ez dauka ezer argitaratzeko asmorik. "Astirik ez daukat baina ideiak asko. Noizbait gauzatuko dira".

# 'Gurean Bai'k lehen urtea bete du

Proiektua bide onetik doala adierazi dute arduradunek

*51 elkarte eta erakundek euskara gehiago erabiltzeko konpromezua hartu zuten orain dela urtebete. Elgoibarko Izarrak prestatu eta Udalak babestutako proiektua da Gurean Bai, eta 1996ko urtarrilean egin zuten plangintzaren aurkezpena. Urtebete pasatu da eta 12 hilabete hauetan egindakoaren berri eman zuten arduradunek joan den asteazkenean, jende aurrean egindako balorazio-aurkezpenan.*

**E**uskara Batzordeko presidentea den Gotzon Arrietak Udalak Gurean Bai zergatik babesten duen azaldu zuen. Bere esanetan, "Elgoibarren elkartearen inguruan jende asko mugitzen dela ikusita, proiektu honek jende askorengan izan dezake eragina, eta euskararen normalizatorako tresna garrantzitsua izan daitekeela uste dugu".

Segidan, Elgoibarko Izarrako presidentek, Inasio Garmendiak, hartu zuen hitza. Bere esanetan, "gure elkartearen egituran oso garrantzitsua da Gurean Bai. Erabilera suspertzeko proiekturik garrantzitsuena, seguruenek. Proiektu global baten lehen partea da entitateei zuzendutako hitzarmena, gero merkatartizara eta lan mundura zabalduko baitugu".

Balorazioari, Abel Irizar hitzarmeneko teknikariak eman zion amaiera. Aurten go helburuak lau izan direla adierazi zuen. Batetik, hitzarmena zer den ondo azaldu eta entitateei ulertarazi. Bigarrenik, entitateen egoera

linguistikoa zein den aztertu. Hirugarrenik, bakoitzari egokitutako hitzarmen espezifikoa prestatu eta, laugarrenik, lan metodologia finkatu. Helburu hauek bete direla aipatu zuen teknikariak eta aurten izandako lan-bolumenaren kopuruak eman zituen (ikus beheko koadroa).

Lehen urteari buruzko balorazioari buruz, "herriko 51 entitatek horrelako proiektu bati baietz esatea zen lehen lorpena" azaldu zuen teknikariak. Lehen urtean ez da bajarik egon eta beste 4 entitatek sinatu dute. Gaur egun 52 entitate daude. "Gainontzean, Hitzarmenaren eragina igartzen hasi dela esan dezakegu. Urtebetean gauzak asko aldatu ezin badira ere, entitateek badakite euren egoera linguistikoa zein den eta hasi dira egoera hau hobetzeko bidea egiten".

### Bigarren urteari begira

Lehen urteko helburuak bete direla adierazi ondoren, bigarren urterako asmoak azaldu zituen Abel Irizarrek. Bigarren urtean hitzarmen espezifikoetako helburuak betetzen hasia da asmoa. "Irudi linguistikoa euskaldundu, ezagutza lantzen hasi (ikastaroen eta euskaltegien bidez) eta erabilera indartzen joatea".

### GUREAN BAI-k emandako zerbitzuak

	GUREAN BAI-ko entitateei	GUREAN BAI-tik kanpoko entitate eta enpresei
Itzulpenak	56	24
Zuzenketa-hobekuntzak	35	2
Aholkularitza	16	13
<b>GUZTIRA</b>	<b>107</b>	<b>39</b>



Asteazken iluntzean egin zuten Gurean Bai hitzarmenaren lehen urteko balorazioa.



# PASIBOAK

## *al dira Elgoibarko GAZTEAK?*

*1997ko abenduaren 28an okupatu zuen gazte Asanbladak Alkortako lokala. Duela bi aste itxi zuen Ertzantzak epailearen aginduz Gaztetxea. Orain dela hilabete inguru, Gazte Asanbladak pankarta bat zintzilikatu zuen Gaztetxearen balkoitik. Bertan, "Os moveis menos que los ojos de Espinete" irakur zitekeen. Guri atentzio deitu zigun idatziak, herrian mugitzen ez diren gazteei zuzendua al zen? Elgoibartar gazteak pasiboak al dira benetan? Edo ekin-tza eta interes konkretuetarako bakarrik mugitzen dira? Ideia edo galdera horrekin, herriko hiru kolektiborengana jo dugu eta bakoitzari bere iritzia eskatu diogu.*

Lorea Perez de Albeniz  
Gazte Asanblada



"Gazte Asanblada guztiek osatzen dogun koordinadoran, burutik pasa jakun lelen gozua izan zan jendian pasibidadia salatzia, gaztien artian kontzientzia sortzia. Gauza asko pasatzen dia eta guk ez badogu ezer eitzen berdin jarraitxuko dabe. Eta pankarta hori kanpaina horren parte izan zan.


Gazte Asanbladak beti pentsau izan dau pasibidade horren aurka onena Gaztetxia izango litzakela. Eta Gaztetxia euki izan doun denboran ikusi dou jende gazte asko mobitxu dala, bai gauzak antolatze-ko eta bai parte hartze-ko orduan ere. Gazte askok bultzada bat bihar dabe baina gero mobitzen dia. Gaztetxian esperientzia izan dala-eta kuadrilla mordo bat etorri dia 14 urtekin hasitxa, kolektibuak ezezik jende partikularrak ere gauzak proposatu ditxu, Asanbleetan 60 pertsona elkartzen ginan... Jendiak gogua badaka, aukeria da falta dana".

Antxon Alvarez  
KOKOE



"Nik uste dut jende gaztea ezin dela gizarteko beste sektoreetatik bereiztu. Adin guztietako jendearen artean daude pasiboak direnak eta aktiboagoak direnak. Gazteak behar bada aktiboak dira baina ez solidarioak, gehiago begiratzen dituzte euren interesak taldearenak baino. Azken finean gizartearen islada dira. Halere, Elgoibarraren ikusi besterik ez dago zenbat elkarte dauden, bai kulturalak, kirol taldeak edo beste edozein motatakoak. Horietan guztietan jende gaztea dabil bueltaka, gertatzen dena da dibertsifikazio handia dagoela, bakoitzak berari gus-tatzen zaiona aukeratu eta horretan aritzen da eta ez dira talde handiak ikusten. Nik uste dut liderrak falta direla behar bada, jendea mugiaraziko duten pertsona klabeak baina ez dut uste gaztedia pasiboa denik. Gaztetxearen kasuan, esaterako, garbi ikusi da badutela antolatze-ko kapazidatea eta iniziatiba".

Manu Izagirre  
Talde Antimilitarista



"Talde Antimilitaristan gauden gehixenak 26-28 urte bitartekuak gera eta soldaduzka da gai bat batez ere gu baino gaztiauak diane-eragiten diona. Igual guk ere ez dou lortu jende hori gerturatzia eta kontzi-entziazia. Gainera, askotan zuri edo inguruko bati gertatzen ez jatkon bitxartian ez zera hainbeste mobitzen. Indibidualistak gera gizartiak hori erakutsi digulako eta askotan denbora faltia ere egoten da, guri taldian hori pasau izan jaku. Zeozer antolatu bihar zala baina inork ez zakala denborarik. Gainera oso akomodauta gaude, dakagunakin konformatzen gera. Asko kejatzen gera baina gero ez dou ezer eitzen hori aldatzeko. Izan laike ohixura faltia ere. Ez digute erakusten gauzetan parte hartzen, ez dogu aukera gehixegi eukitzen... Dinamika horretan sartzen zera eta gero hori igarri itxen da. Ez dakagu ohixurarik kolektibo desberdinetan parte hartze-ko, antzerkixak ikustera juteko...".



INTERESEKO

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emailak . . . 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar) 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udaltzaingoa . . . . 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia. . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

**HIRUGARREN ADINA**

San Lazaro Egoitza 740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21

**21**  
ostirala

**16,00 ODOL**  
**ATERALDIA**  
P. M. Urruzuno 8an

**19,00 HITZALDIA**  
Gaia: "Haurra, etxetik eskolara. Eskolaratze prozesua"  
Hizlaria: Izaskun Madariaga  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Herri Eskola

**21,00 MORKAIKOREN**  
**BATZAR OROKORRA**  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkarte

**22,15 ZINE KLUBA**  
"Libertarias"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

**22**  
larunbata

**11,30 ATE IREKIEN**  
**EGUNA HERRI**  
**ESKOLAN**  
(Egun osoan zehar)  
Herri Eskolan

**16,00 ELGOIBARKO**  
**BASERRIEN**  
**LIBURUAREN**  
**AURKEZPENA**  
Kultur etxean  
Antolatzailea: Debemen

**19,30 HBren**  
**MANIFESTAZIOA**  
"Demokrazia E.H.rentzat"  
Madalatik  
Antolatzailea: HB

**19,30-22,15 ZINEA**  
"Pánico en el tunel"

**23**  
igandea

**16,30-19,30-22,15**  
**ZINEA**  
"Pánico en el tunel"

**24**  
astelehena

**19,30 HBren BILERA**  
Gaia: Martxoaren 7ko greba  
Kimetz elkarte  
Antolatzailea: HB

**22,15 ZINEA**  
"Pánico en el tunel"

ZIN



**Pánico en el tunel**

Manhattan eta New Jersey lotzen dituen tunel batean eztanda bat dago. Tunela Hudson ibaiaren azpitik pasatzen da. Tunelean harrapatuta geratzen den pertsona talde baten bizia arriskuan dago oxigeno eza eta hormetatik filtratzen den urarengatik. Hil ala biziko egoera baten kontaktuz da.

**Zuzendaria: Rob Cohen**  
**Antzezleak: Silvester Stallone, Amy Brenneman, Stan Shaw.**



**OIERKI IGOGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 ● ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

ELENA

ileapaindegia

---

Depilazio Elektrikoa

---

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

## 27 osteguna

**19,00 GURASOEI  
ZUZENDURIKO  
IKASTAROA**  
Ikastolan

**22,15 ZINE KLUBA**  
"Ridicule"  
Antolatzailea: Ongarri  
Zine Kluba

## 28 ostirala

**22,15 ZINE KLUBA**  
"Ridicule"  
Antolatzailea: Ongarri  
Zine Kluba

### ● Odol ateraldia

Gaur, hilak 21, odola aterako zaie Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan aurrez deitutako guztiei. Emaila izateko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da. Honez gain, gogoratu, bazkide babesle izateko aukera ere bada-goela.

### ● HBren bilera eta manifestazioa

HBk Mahai Nazionalako kideen atxiloketen aurrean manifestaldirako deialdia luzatu du larunbaterako, hilak 22. "Demokrazia Euskal Herriarentzat" lemapean izango da eta Madalatik hasiko da iluntzeko 7,30etan. Bestetik, datorren martxoaren 7ko grebari buruz hitz egiteko bilera egingo da Kimetz elkartearen datoreen astelehenean, hilak 24, arratsaldeko 7,30etan. Alderdiak dei egiten die abertzale guztiei bi ekitaldian parte hartzeko.

### ● Ate Irekien Eguna Herri Eskolan

Bihar, larunbata, goizeko 11,30etatik aurrera Ate Irekien eguna ospatuko du Herri Eskolak. Goizean goizetik tailerrak antolatuko dira patioan. Eguerdian ludoketa irekiko da 3 urtetik 7 urtera bitarteko umeentzat eta kirolak hasiko dira patioan. Eguerdian guraso eta ikasleek bazkaria egingo dute eta 4,30etan pailazo jaialdia hasiko da. Arratsaldeko 5,30etan txokolatada izango da guztientzat. Egun osoan zehar eskola irekita egongo da gelak, instalazioak etab. ikusi ahal izateko. Zuzendaritza taldea edozein zalantza argitzeko prest egongo da.

### ● Guraso eta seme-alaben arteko harremanak

Elgoibarko Udalak herriko ikastetxeekin bat eginik, seme-alaba gaztetxoak dituzten gurasoei zuzenduriko ikastaroa antolatu du. Klaseak Ikastolan izango dira iluntzeko 7etatik 9etara bitartean. Ikastaroa datorren astartean, hilak 25 Gotzon Arrieta Gazte Batzordeko kideak esandakoaren arbera, hasiko da.

### ● Emakumeen bazkaria

Datorren martxoaren 8an Eumakume Langilearen Eguna ospatzen delareta, Haizea Emakume taldeak bazkaria herrikoia antolatu du emakume guztientzat Aubixan. Izena emateko hilaren 28a baino lehen 74 38 24ra deitu arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean.

## ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: P. Laconte (Frantzia 1996) Antzezleak: Charles Berling, Jean Rochefort, Fanny Ardant.

### Ridicule

Cesar sarietan (Espainiako Goya sariaren parekoa) irabazlea izan den pelikula da. Pelikula eta zuzendari onena izan da. 97ko Oscar sarietarako izendatua izan da, atzerriko pelikula onenaren saillean. XVIII. mendeko Frantziako gortean girotuta, Luis XVI. erregearen inguruan gertatzen diren intrigen inguruko komedia da.

## TXAN- DAK

### FARMAZIAK

Egunez Gaeuz

22 Yudego\*Anduaga

23 Yudego\*Anduaga

24 Ormazabal  
Ormazabal

25 EtxeberriaAnduaga

26 Ormazabal  
Zabaleta

27 Etxeberria  
Etxeberria



1997ko otsailaren 10ean, 71 urte zituela hil zen **MARIA AGIRREAMALLO**aren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Arraunean egiteko aparailua salgai. Mari Carmen ☎ **74 01 86** (9:00-13:00 eta 15:00-20:00)
- ◆ MIBI 4X4 etxe-furgoneta bat salgai. Teilatu altzagarria, guztiz ekipatua, estra askorekin. ☎ **76 04 47**
- ◆ "LETRERO DE MENSAJES" delakoak saltzen ditut era guztietako komertzioetarako, taberna eta jatxeetarako bereziki fabrikatuak. Berriak eta gutxi erabiliak. Prezioa hitzegiketotan. ☎ **74 00 38**
- ◆ Panasonic KR-P1180 inpresore matritziala, Windows 95ekin konpatiblea salgai. (Mikel) ☎ **74 19 21**
- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ **79 78 26**. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreinatua berria salgai. ☎ **74 23 22**

## Bestelakoak

- ◆ Sobre bat galdu zait ihauterietako argazki batekin eta pinturako koaderno bat erregaluzko paperean. Aurkitu duenak dei dezala edo Udaltzaingora eraman. ☎ **74 13 39** (Gauzez)
- ◆ Futboleko baloi urdin bat topatu nuen hilaren 13an Plaza Txikian. ☎ **74 30 33**
- ◆ Txori bat galdu da Artetxe aldean. "Ruisseñor del Japon". Mokoia laranja kolorekoa du eta bularra horixka eta laranja. Sarituko da. ☎ **74 29 53**
- ◆ Zortzi-hamar urte bitarteko ume batentzako bizikleta oparituko nuke. ☎ **74 44 34**
- ◆ Madala inguruan almagenerako lokal bat alokatzen da. ☎ **74 13 84**

## Garajeak

- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ **74 32 04**
- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, pista beltzean. ☎ **74 33 52**
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ **74 34 10**
- ◆ Garajea daukat alokatzeko pista beltzean, labaderoa erabiltzeko eskubidearekin. ☎ **74 01 77**

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Klinika auxiliaria eta psikiatra auxiliaria gaixoak zaintzeko rest dago. ☎ **74 05 45**
- ◆ Neska batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. ☎ **74 30 84** (Reme)
- ◆ Haurrak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ **74 22 78**
- ◆ Ordenadorez lanak egiten ditut bai enpresentzat eta bai partikularrentzat. Deitu ☎ **74 22 86** zerbakira.
- ◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke. ☎ **74 30 30**
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ **74 36 38**
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ **989 09 31 86**
- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ **74 11 40** (Iru-ne)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ **74 39 39** (Puri)

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Informatika enpresa batek lan egiteko eta ikasteko gogoia duen 26 urtetik beherako gaztea behar du. ☎ **74 37 04** (Miryam)
- ◆ Piezen Mekanizazioan espezializaturiko enpresak behar du: fresatzeko CNC makinarako fresatzaile edo zutabe mugikor eta begietako bistagailua duen Juaristi makinarako mandrinatzailea. Ezinbestekoa: kontrol numerikoa jakitea eta euskaraz hitz egitea. Interesatuak dei ☎ **74 12 97/74 06 64**
- ◆ Uztailetik aurrera Alemanian aupa bezala lan egiteko pertsona bat behar du bertako familia jator batek. ☎ **74 17 80**
- ◆ Informatika, enpresariales, fisika eta kimikan lizentziatu edo diplomatuak behar ditugu klaseak emateko. Bidali kurrikuluma 245 postakutxatilara, Bergara.
- ◆ Euskaldun emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. ☎ **20 14 80** (Lanorduetan deitu. Miren)
- ◆ Martxan dagoen fotokopisteria eta paperdenda bat traspasatzen da Ernuan ezin dugulako atenditu. ☎ **17 07 07 / 74 21 43**

## Partikularrak

- ◆ Microsoft Office-i buruzko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da Elgoibarren. (8,00-17,00) 74 06 00
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ **74 21 65** Javi
- ◆ Ingelesko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ **74 15 82** Edu

## Etxebizitzak


- ◆ Pisu amoblatua alokatzen da San Frantzisko kalean, 3 gela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. ☎ **94 43 06 196** (gauzez)
- ◆ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldia, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ **74 44 66**
- ◆ Pisu daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldia, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ **74 37 25**
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldia eta 2 bainu. Oso eguzkitua. ☎ **74 01 34**
- ◆ Pisu salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldia eta bainua. ☎ **12 72 22**
- ◆ Pisu salgai San Inazio kalean. 90 m2koa. (9etatik 13etara) ☎ **74 32 04**

## Agurrak

- ◆ "Superultramegaplus" zorionak **Sara Perezi** otsailaren 16an 9 urte egin zituelako. Ikas Izurdeen partez.
- ◆ Zorionak **Maria Jesus Makazagari** hilaren 17an urteak bete zituelako. Musu handi bat gure zaharrari denon partez.
- ◆ Zorionak **Miriam Iriondori** hilaren 26an 14 urte beteko dituelako. Beatrizen partez.
- ◆ Zorionak **J. Luisi** hilaren 22an urteak beteko dituelako. Miren eta Nerearen partez.

## Agurrak

- ◆ Zorionak **Iniigo Lopezi** bere 5. urtebetetzean aitaxo eta amatxo, Xabier eta bere lehengusu Unairen partez.



- ◆ Super zorionak **Aneri** hilaren 20an bigarren urtebetzea izan zelako. Familia osoaren partez.



- ◆ Otsailaren 23an 4 urte beteko dituen **Ane Uraini** zorionak guraso eta ahizpa Lararen partez.



- ◆ **Eider Egureni**, besarkada bat eta zorionak guraso, lagun eta ahizpa txikiaren partetik, otsailaren 19an 20 urte bete zituelako.

- ◆ Zorionak **Eukene Gili** bere urtebetzean guraso eta familiakoan partez.



- ◆ Zorionak **Jon Lopezosari** otsailaren 23an 12 urte egingo dituelako. Familiaren partez. Josu eta Anak musu handi bat desio

diote.

- ◆ Zorionak **amama Carmeni** zure urtebetetzean. Musu handi bat Itsaso, Iniigo eta etxekoan partez.

- ◆ **Maidar Leteri** zorionak kuadrilakoan partez, gaur, ostirala, 18 urte bete dituelako.

- ◆ Hilaren 17an urteak bete zituen **Mariajeri** zorionak Asier eta Aitorren partez.

- ◆ Zorionak **Itxaso Perezi** otsailaren 17an 9 urte egin zituelako. Ikas Izurdeen partez.

Gremioen gida honetan azaldu  
nahi baduzu, deitu!

☎ 74 37 04

## **ARROZTEGIAK**

### **BIENA**

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 31 16

### **GARCIA**

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 74 32 38

### **JUARISTI**

Leihoak-Armairu  
enpotratuak  
Santa Ana, 18  
☎ 74 29 94

### **LODOSO**

Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 34 90

### **SORALUZE**

Leihoak-Armairu  
enpotratuak  
Santa Ana, 3  
☎ 74 36 34

### **ULAZIA**

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 74 05 47

### **ZABALA**

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea 16  
☎ 74 03 96

### **LUIS F. BERISTAIN**

Artetxe, 1  
☎ 909 42 68 19

## **ITURGINTZA**

### **ANGEL**

Santa Ana, 5  
☎ 74 17 61

### **JAVI**

Erretxindi, 1  
☎ 74 14 80

### **JUAN CARLOS S.L.**

Urasandi 59-61, behea  
☎ 74 34 87

### **PAGOAGA**

San Antolin kalea, 13  
☎ 74 02 79

### **ZALDUA**

Urasandi, 26  
☎ 74 05 30

### **ZUBIZARRETA**

Ubitarte, 5  
☎ 74 07 89  
☎ 908 14 30 40

## **IGELTSERITZA**

### **KIDEEK S.L.**

San Roke, 17  
☎ 74 34 86  
☎ 989 58 37 61

### **ANTONIO MARKEZ**

Urasandi, 24  
☎ 74 34 18

### **PATXILLO**

Pedro Muguruza, 13-5  
☎ 908 31 96 42

## **PINTURAK**

### **PINTURAS ELGOIBAR**

FERMIN  
Urasandi, 57-3  
☎ 74 39 91  
☎ 909 76 28 80

### **JOSE PINTURAK**

San Bartolome, 28  
☎ 74 12 55  
☎ 929 44 23 14

## **ELEKTRIZITATEA**

### **ARAMAR**

Morkaiko, 1  
☎ 74 12 80

### **AZPELETA**

San Frantzisko, 51  
☎ 74 12 38

### **BETI ARGÍ**

Errosario, 6  
☎ 74 16 44

### **URZELAI**

Santa Ana, 12  
☎ 74 13 76


## **ISOLAMENDUAK**

### **GLAS CONTROL S.L.**

Inpermeabilizazioak  
Ubitarte, 7  
☎ 74 30 94

# PROIEKTU BATERATUA

“Adin bakoitzak bere gunea, gune guztiek proiektu bera”



*Zatoz, herri eskaintza bateratuan partaide izatera.*

AURREMATRIKULA: Otsailaren 17tik-28ra



75 61



74 08

**IMH** 74 02